

EHUNGAILUA

LANDA-EREMUAN
ZURRUMURRUEN AURKAKO ESTRATEGIAK
EHUNTZEKO APUNTEAK ETA PUNTADAK



Kredituak

Rosabel Argote, Raquel Celis, Virginia Cid, Paloma Gutiérrez y Javier Villanueva.

Arabako Zurrumurruen Aurkako Estrategia Arabako Foru Aldundiaren eta Udalen konpromisoari eta zurrumurruen aurkako eragileen sareen inplikazioari esker gauzatu da.

CEA(R)
Euskadi
Comisión de Ayuda
al Refugiado en Euskadi
Euskadiko Errefuxiatuen
Laguntzarako Batzordea

Diseinua eta maketazioa

2ados

Itzulpena

Komunika

Lege-gordailua

LG BI 01948-2020

Finantzaketa



CEAR-Euskadi Zurrumurren Aurkako ZAs Euskal Sarearen parte da






AURKIBIDEA

EHUNGAILUA	01
GURE ESPERIENTZIA ARABAKO LANDA-EREMUAN	03
Jatorria eta handitzea	04
Ikuspuntua eta metodologia	05
Iruleak, landa-eremuan inplikaturako eragileak	07
APUNTEAK ETA PUNTADAK	08
Landa-eremuan ehuntzeko gakoak	09
Josteko kaxa	18
Zurumurruek aurkako esperientziak eta tresnak	18
Landa-eremuan zurumurruek aurkako Estrategia gauzatzeko eta zabaltzeko materialak	27
LANDA-EREMUKO IRULEAK, LEHEN PERTSONAKO ISTORIOAK	35
Komunitatea ehuntzeko hitzak	36
Hegalen artean: zurumurruek aurkako antzerkia	38
BIBLIOGRAFIA	39

EHUNGAILUA





Ehungailua

Pertsonok hari edo artileak gara, eta, batzuetan, aske ibiltzen gara. Beste batzuetan —ohikoan—, txirikordatu, korapilatu eta elkar lotzen gara.

Hala, bikote bakoitza, familia bakoitza, lagun koadrila bakoitza, eskuz ehundutako oihal bat da. Gauza bera gertatzen da eskola-talde, auzo-elkarte, aisialdiko koadrila edo antzerki, dantza edo eskulan talde bakoitzarekin ere. Pertsona bakoitzak bere ehundura eta kolorea ematen dizkio bere txirikordari. Eraitza den tapiza ez da soilik hari ezberdinen batura hutsa.

Batzuetan, elkarrekin erlazionatzen garenean, mordoiloetan korapilatzen gara, pertsona batzuk besteen aurka jartzen gaituzten nahaste-borrastean. Nahaste horiek askatzea ez da lan erraza, nahiz eta komunitate bakoitzean beti dauden prest auzokideak, mimoz, korapiloa bilatu eta askatzeko.

Izan ere, azkenean, komunitatea da garrantzitsuena, alegia, pertsonak funtsezko hari ordezkazekin garen ehuna, komunitate-kide izatearen sentimenduaz josita.

Joskintza ariketa hau eskuzkoa eta espontaneoa izan daiteke. Den den, hariak oso ezaugarri ezberdinak dituztenean, edo egin beharreko oihalaren tamaina familia oihal batena baino handiagoa denean, ehuntzen lagunduko diguten tresnak behar dira.

Ehungailu deitzen dira. Zurezko edo metalezko euskarri edo egitura bat, non irazki izeneko hariak jartzen diren. Irazkia muturretatik lotuta geratzen denean, beste hari batzuk horizontalki gurutzatzen dira, bilbearen hariak, hain zuzen. Bilbearen eta irazkiaren arteko gurutzaketa horrek sortzen du oihala.

Oso iradokitzailea da «auzo-oihal», «komunitate-oihal» edo «gizarte ehun» batekin duen paralelotasuna. Metafora horri jarraituta, ehungailua eskulangintza-tresna da, herrietan martxan jartzen den estrategia askotariko bizilagunen artean interakzioa sustatzeko; kulturalki anitzak diren espazioak sortu eta indartzeko, bizikidetzaz errazteko.

Arraziakeria edo xenofobia kutsua duten zurrumurruek hainbat jatorri kulturalako jendea harremantzea eragozten dutenean, martxan jartzen da ehungailua, txirikordatzea errazteko. Komunitateko liderrek eta horretarako gaitutako eta indartutako herritarren sareek erraztu egiten dituzte irazki eta bilbearen arteko mugimenduak, eta, ehundu ahala, komunitatea osatzen dute. Iruleak dira. Herritar-sare horiek ez daude bakarrik. Babestu eta eutsi egiten dituzte komunitatean kulturarteko bizikidetzaren alde lan egiten duten gainerako eragile sozial, politiko, instituzional eta kulturalak.

Iheslariak Laguntzeko EAEko Batzordean (CEAR-Euskadi) udalerrietan egiten dugun lana ehuntze-lan horri laguntzea da. Hori egiteko, Zurrumurruen Aurkako Estrategien (aurrerantzean, ZAE) tresnak erabiltzen ditugu. Tresna horiek ere esku-hartze komunitarioan oinarritzen dira, zurrumurru eta xenofobiatik askatzeko metodologia gisa.



GURE ESPERIENTZIA ARABAKO LANDA-EREMUAN




ARTZINIEGA
1.911 biztanle



LAUDIO 18.237 biztanle



AMURRIO 10.263 biztanle



VITORIA-GASTEIZ
255.042 biztanle

ARAIA 1.616 biztanle



AGURAIN
5.296 biztanle

MAEZTU 732 biztanle



KANPEZU 1.067 biztanle



Jatorria eta zabalpena

Jarraian aurkezten dugun gidaliburu honen asmoa da gako batzuk ematea, gure esperientziatik abiatuta, oro har landa-inguruneetako administrazioei, entitate sozialei —publiko zein pribatuak—, elkarteei eta komunitateei, begirada feminista duen aurreiritzi xenofoboak desmuntatzeko ikuspegitik, kulturarteko bizikidetza eraikitze garapen komunitarioko prozesu bat ezartzeko.

2010ean Bartzelonako Udalak Espainiako Estatuko lehen ZAEa martxan jarri zuenetik, Xarxa BCN Antirumors izenekoa, lurralde askok garatu dituzte euren estrategiak, eredu eta metodologia berari jarraituz. Hala nola Sabadell, Tenerife, Fuenlabrada, Bilbo eta Getxok. Ezagutzen ditugun ZAE gehienak hiri-inguruneetan egin dira, eta Bartzelonako esperientzia izan da funtsezko erreferentzia.

Xarxaren proposamenak erreferentzia dira CEAR-Euskadiren lanean ere, baina gure esperientzia, gehienbat, landa-ingurunean garatu da. Testuingurua landa-giroa eta -ohiturak dituen herri txiki bat denean, dinamika zehatzak sartzen dira jokoan: biztanleriaren tamaina, hurbiltasuna, elkarrekintzak nola gertatzen diren eta zurrumurruen bizitza, portaera, zabalpena eta desmuntatzea ulertzeko loturak.

2016tik hona ZAEak dinamizatzeko entitate gisa izan dugun esperientziak zenbait gako eman dizkigu, eta landa-ingurunean ZAE bat garatu nahi dutenentzat baliagarriak izan daitezkeela uste dugu.

2020. urtearen hasieran lau urte bete ziren Arabako Lautadako, Aiarako, Mendialdeko eta Errioxako kuadrillean ZAEak garatu eta martxan jarri zenetik. Oraindik ere, bide luzea dugu egiteko. Baina zenbait ohar, gako eta esperientzia partekatu nahi izan ditugu, baliagarriak izan daitezkeenak landa-eremuko ZAEa martxan jarri nahi duten beste irule batzuentzat. Era berean, atzera begiratu nahiko genuke, gure tresnak eta ehungailuak berrikusteko, beharrezkoa dena konpontzeko, teknika berriak aurkitzeko, jakintzak trukatzeko. Finean, komunitatean josten ikasten jarraitzeko.

BARTZELONATIK LANDA-EREMUKO ARABARA

ZAE delakoa Bartzelonan sortu zen, 2010ean. Estereotipo eta aurreiritzi arrazistetan oinarritutako atzeritarrei buruzko zurrumurru faltsuen gorakadaren aurrean, eta udalak zuen kezkaren ondorioz, abian jarri zen garapen komunitarioko herritarren estrategia bat. Helburua zen horiek desmuntatzea eta bizikidetza-espazioak sortzen laguntzea, zurrumurru xenofoboen hedapenak sortutako etsaitasun- eta koexistentzia-espazioekin kontrajarrita. Horretarako, asmoa zen herritar taldeak deitu eta biltzea, zurrumurru horien faltsutasunari buruzko informazioa ematea, eta komunikazio-teknika eta -trebetasunei buruzko prestakuntza ematea, beren espazio eta inguruneetan zurrumurruok desmuntatzeko gai izan zitezen eta, «elur-bola» efektuari esker, zurrumurruren aurkako mezua herritar guztien artean zabaltzen joan zedin. Pertsona horiek izango lirатеke zurrumurruren aurkako eragileak.

Azken batean, BCN Antirumores sarea —Xarxa— pertsonak, elkarteak, entitateak, ekipamenduek, programek eta udal-zerbitzuek osatzen dute, eta, Bartzelonako Udalarekin batera, elkarlanean ari dira kultura-aniztasunari buruzko zurrumurruak eta estereotipoak desegiteko eta berdintasunean, errespetuan eta elkarrekiko aitortzan oinarritutako harremanak bultzatzeko, hirian bizikidetza oztokatzen duten diskriminazioen aurrean. Orduz geroztik, beste lurralde batzuetara ere hedatu da, eta erreferentzia bihurtu da edozein lekutan garatu nahi den edozein ZAE egiteko orduan.

2016an, CEAR-Euskadik Arabako Lautadako, Aiarako eta Mendialdeko kuadrillean ZAEa dinamizatzeko erronka jaso zuen, Arabako Foru Aldundiaren (AFA) eta Lautadako kuadrillaren bultzadarekin eta

finantzaketarekin. Gaur egun, ia 1.000 biztanle baino gutxiago dituzten udalerrietan, entitateak ZAEak dinamizatzen jarraitzen du, Arabako Foru Aldundiaren eta Aguraingo Udalaren Berdintasun, Lankidetzeta eta Kulturartekotasun zerbitzuaren bultzadarekin, finantzaketarekin eta konpromisoarekin.

Gaur egun, CEAR-Euskadik honako udalerri hauetan dinamizatzen du ZAEak: Arabako Lautada, Agurain eta Araian; Aiaraldean, Amurrio, Artziniega eta Laudion; eta Mendialdean, Maeztu eta Kanpezun.

Ikuspuntua eta metodologia

ZAE-en marko teorikoari jarraituz, CEAR-Euskadik zurrumurruen aurkako estrategiak beste abiapuntu batetik dinamizatzen eta planteatzen ditu, jatorri kultural ezberdineko pertsonen eta familien topaketa, **Bizilagunak, aldameneko familia** egitasmoaren ospakizunetatik abiatuz:

Auzokide atzerritarrak eta autoktonoak elkartu, eta bazkari bat partekatzen dute beren etxeetan, leku askotan aldi berean eta egun berean, elkar ezagutzeko eta hurbiltzeko, eta horrela, elkar ezagutzak maitasuna sortzen duenez, kulturen artean dauden aurreiritzi batzuk zalantzan jarri eta ezeztatu ahal izango dira.

Gasteizko zenbait urtetan otordu horiek dinamizatzen izandako esperientziatik, berretsi dezakegu topaketek parte-hartzaileengan energia positiboa sortzen dutela, eta, gure ustez, proposamen ezin hobea dira landa-inguruneak aztertzeko eta bizikidetzeta eraikitzen jarraitzeko estrategia bat garatzeko, beste kultura batzuekiko dauden aurreiritzi negatiboak eta zurrumurru faltsuak zalantzan jarriz eta desmuntatuz. Finean, ZAE bat.

Kultur aniztasunarekin zerikusia duten gaiei buruzko tailer eta hitzaldi erakargarrien bidez, eta kulturartekotasunarekin zerikusi gutxi —edo batere zerikusirik ez— duten edonorentzako beste gai interesgarrien bidez, animatu nahi dugu pertsona gehiagok, Bizilagunak ekimenaren ondoren, bat egin dezaten ZAEa osatzen jarraitu nahi dutenekin. Hala, askotariko inguruneetako jendeak sare bat *osatzen du, eta ekintza indibidual eta kolektiboen bidez, aurreiritzi negatibo eta zurrumurru faltsuekin beren burua nahasten uzten ez duten* herritar ereduak sustatuko dute. Zurrumurruek aurkako eragileak dira.

Auzotarren parte-hartzea bizikidetzeta eta herritartasun kritikoa sortzeko prozesu gisa ulertzen eta sustatzen dugu; prozesu hori parte hartu nahi duten pertsonen arabera moldatu behar da, eta ez alderantziz. Hau da, ZAEan parte hartu nahi duen edonork, parte hartzeko modua eta espazioa izan behar ditu. Bai Bizilagunak ekimenaren bazkarietan parte hartu nahi badu, bai hitzaldi bakarrera soilik joan nahi badu, edo kultura-aniztasuna ikusarazi eta herritarrak zurrumurru arrazista eta xenofoboaren aurka sentsibilizatzeke ekintzak garatu nahi baditu. Banaka edo taldeka, ekintza horiek keinu eta mezu politiko bihurtzen dira,

eta jendarteari ez zaizkio oharkabeen pasatzen. Hala, sarera batu dira kulturartekotasunaren arloko profesionalak, Administrazioako eta erakundeetako langileak, politikariak, bizilagunak, familiak, gazteak, haurrak...

Ekintza mota ezberdinak, batez ere, sarea osatzen duten pertsonen ideia eta proposamenetatik sortuko dira. Gure erantzukizuna izango da parte hartzeko espazio horiek sustatzea eta erraztea, motibazio moduak bilatzea eta ekintza horiek babestea eta laguntzea.

ZAE-en prozesuak etengabeak eta denboran iraunkorrak dira; garai gogorragoak eta presentzia handiagokoak dituzte, eta garai apalagoak. ZAE-en arrakastaren gakoetako bat da hura osatzen duten pertsonen inplikazioari eta parte-hartzeari ematen zaien erantzun-maila egokia lortzea, eta nahi duten moduan egin dezaketela senti dezatela. Denborarekin, indartu egingo dira mugarri estrategiko batzuk, hala nola Bizilagunak otorduak, eta beste batzuk sortuko dira, sarea ahaldundu eta estrategiaz jabetu ahala. ZAEa finkatu ahala berrasmatuko den prozesua izango da.

CEAR-Euskadik ZAEak ezartzeko darabilen metodologiak bost fase ditu:

1. **Lurraldearen kulturarteko diagnostikoa.** Errealitatearen hasierako azterketa batetik abiatuta, kulturalki heterogeneoak diren espazioen inbentario bat eta diagnostiko-txosten bat egingo dira.
2. **Eragileen mapeoa, kartograma edo direktorioa.** Identifikatzea zeintzuk diren iritzi-liderrak, komunitatearenak, instituzionalak eta instituzionalak ez direnak, eta hainbat arlo sozialetik datozen eragile informatzaileak; ondoren, mapatutako espazioan egon daitezkeen bizikidetza-, koexistentzia- eta etsaitasun-espazioak identifikatzea.
3. **Zurrunmurruek aurkako herritarren sare bat** sortzea, aktibatzea eta sendotzea: **Bizilagunak: Kulturarteko bizikidetzaren alde, zurrunmuru xenofoborik gabe.** Bizilagunak otorduak antolatzea eta eskerrak emateko topaketak egitea, zurrunmurruek aurkako herritarren sarea sortzeko abiapuntu gisa.
4. **4. Zurrunmurruek aurkako ekintzen, MovilizAcción delakoen,** diseinu partekatua eta laguntza. Sarea dinamizatzea, besteak beste «zurrunmurruek, estereotipoak eta aurreiritziak», desmuntatzeko estrategiak eta komunikazio-tresnak lantzeko gaikuntza eta prestakuntza tailerren bidez, sareak berak, inplikaturako erakundeek eta auzotarrek eskatuta. Zurrunmurruek aurkako ekintzen, *MovilizAcción delakoen*, diseinu partekatua eta laguntza.
5. **Sarearen fidelizazioa.** Transferentzia eta hedapena. Mintegiak, hitzaldiak eta tailerrak, kultura-aniztasunari buruzko gai garrantzitsuei buruzkoak, eta sareko bileretarako laguntza eta dinamizazioa, betiere eragile gehiagori zabaldua dagoelarik.



Iruleak, landa-eremuan inplikaturako eragileak

Kultura-aniztasunaren defentsan inplikaturak dauden auzotarrei dagokie benetako protagonismoa; izan ere, zurrumurruen aurkako eragileak dira, beren udalerrian kulturen arteko bizikidetzak bultzatzeko egunez egun ehuntzen dutenak.

Azaldu dugun bezala, ZAE-ek proposatzen dutena da lurraldeetan bizi diren pertsonak izatea ekintzak, ekimenak eta ideiak bultzatuko dituztenak, kulturalki askotarikoak diren auzotarren arteko bizikidetzak oztokatzen duten aurreiritzi xenofoboak desagitzen laguntzeko. Lurralde bakoitzean prozesuaren buru diren pertsonak dira, eta estrategia dinamizatzen duen entitateak, kasu honetan CEAR-Euskadik, lagundu eta formakuntza ematen die. Haiek gabe, ezingo litzateke ehungailua martxan jarri.

ZAE-en arrakasta lortzeko, funtsezkoa da lurralde bakoitzeko kultura-aniztasunaren arloko beste eragile batzuekin sarean lan egitea. Beharrezkoa da erakunde, entitate eta elkarteek estrategiaren helburu eta onuretan sinestea, eta hura abian jartzeko inplikatzeko.

Pertsonen duintasunaren errespetua eta defentsa berezkoa du edozein politikak, izan giza eskubideak sustatzearen ingurukoa, edo berdintasuneko jendarte aske eta bidezkoa sustatzeari buruzkoa. Beraz, migratzaile eta errefuxiatuen eskubideen defentsak, besteak beste aurreiritzi negatiboak eta zurrumurru faltsuak urratuak, zeharkakoa izan beharko luke Berdintasuna edo Gazteria bezalako arloetatik gauzatzen diren estrategietan. Garapen komunitarioko eta bizikidetzak sustatzeko proiektuak (Kultura, Kirola eta Euskara, besteak beste) ezartzen diren sailetan ere presente egon beharko luke.

Horrela, ZAEak dinamizatzeak berekin dakar tokiko eta eskualdeko egiturekin artikulatzea eta koordinatzea. CEAR-Euskadik hasieratik ditu aliantza estrategikoak eta udalerriri bakoitzeko tokiko eragileekin elkarlanean aritzeko aliantzak.

Sinergia horien ondorioz, lurraldeetan kulturarteako bizikidetzak sustatzeko ekintzetan parte hartu dugu eta parte hartzen dugu, hainbat eratako beste erakunde batzuek eta etorkinen elkarteek sustatuta.

Halaber, lurraldeko teknikariekin interlokuzioa mantentzen dugu. Ildo horretan, koadriletako berdintasun-teknikariak dira aliatu estrategikoenetako bat ZAE-en eguneroko jardunean. Horregatik, koordinazioa eta hurbilketa sustatzen da Laia Eskolarekiko (Arabako Emakumeen Jabekuntzarako eta Berdintasunerako Eskola). Hurbilketa horren helburua da ZAE-etan ikuspegi feminista txertatzea, eta landa-eremuan bizi diren emakume migratuen integrazioa eta, ondorioz, bizikidetzak hobetzea.

Azkenik, garrantzitsuak dira elkarlan- eta sinergia-harremanak izatea beste lurralde batzuetan antzeko proiektuak eta estrategiak garatzen dituzten erakunde, entitate, elkarte edo plataformekin. Zurrumurruen aurkako eragileen beste sare batzuekin esperientziak partekatzeak gogoeta elikatzen du, eta eragileak berak indartzen ditu, profil politikoagoa hartzen baitute tokiko eremutik globalera igarotzen baitira, ikuspegi komunitario batetik. Horren adibide batzuk dira ZAS, CEAR-Euskadi eta AFA parte hartzen dugun Zurrumurruen Aurkako Euskal Sarea, edo Espainiako Estatuan zurrumurruen aurkako eragileen sareak dinamizatzen dituzten entitateen eta erakundeen urteroko topaketak.

APUNTEAK ETA PUNTADAK



Landa-eremuan lan egiteko gakoak

Zurumurruek aurka, sartu aterpean'. 'Adi zurumurruekin'. 'Ez jarraitu korronteari'. 'Ez elikatu zurumurrua'. Hauek dira zurumurruek aurkako hainbat estrategiatan erabili diren leloetako batzuk, herritarrak eta bizilagunak bultzatzeko zurumurruek hedapena gelditzera, edo, behintzat, hedatzen ez laguntzera. CEAR-Euskadin 'Ez utzi endredatzen' leloa diseinatu eta erabili dugu, aurrerago gure josteko kaxako materialetan ikus daitekeen bezala.

Dokumentu honetan partekatuko ditugun oharra eta puntuak, beste irule batzuentzat lagungarri izango diren esperoan, ehundu egin ditugu tokian tokiko zurumurruek aurkako eragileekin, inplikaturako erakundeekin eta bizilagunekin egindako lanaren bidez, guztiak ere ZAEa egiten den Arabako udalerrietan kultura-aniztasunaren defentsan eta sustapenean lagun direlarik.

Dokumentu hau egiteko, gainera, harremanetan egon gara AFAko Berdintasun, Lankidetzeta eta Bizikidetzeta arloko kulturartekotasun-teknikariarekin, sei urtez baino gehiagoz udaleko immigrazio-teknikari gisa Getxoko ZAEa bultzatu, sustatu eta gidatu duen langilearekin, Aiarako Kuadrillako presidentearekin, Arabako Lautadako eta Mendialdeko Kuadrillako prebentzio komunitarioko teknikariarekin eta Amurrioko Udaleko oinarritzko gizarte-zerbitzuetako teknikariarekin, baita Sartuko teknikariarekin ere.

Era berean, inplikaturako udalerrri bakoitzean ZAEa biziartzen eta eusten duten benetako protagonistekin hitz egin dugu: zurumurruek aurkako eragileak, ehungailua martxan jarri eta aktiboki mantentzen ari direnak.

Gako horiek partekatu nahi ditugu, elkarrekin gurutzatzen diren ahots, hari eta artileen multzo bat batuz, jantzi eta babesten gaituzten oihalek sortzeko, kulturarteko bizikidetzeta batzen eta eraikitzen duen elkarrekintza beroa sortzeko. Landa-eremuko zurumurruek interpretazioan bat datozen ahotsak irudikatzen dituzten ideiak batu ditugu. Horregatik, eta ideia partekatuei heltzeko eta haiei ahotsa jartzeko moduen aniztasunagatik, erabaki dugu aipu bakoitzari egiletzarik ez egotea. Gure lau urteko esperientzian bildutako iritziak, analisiak, ideiak eta ikaskuntzak batzen dituen laburpen bat da hau. Jarraian partekatzen ditugun ideiak, oihala bezala, zatien batura baino gehiago dira.

ZAE-ek arreta jartzen dute estereotipoak eta aurreiritziak sortzeko, balioztatzeko, finkatzeko eta zabaltzeko duten moduan. Baina, batez ere, nola ezabatu edo, behintzat, nola murriztu horien eragin negatiboa, diskriminazioa prebenitzeko eta bizikidetzeta bultzatzeko.

Zurumurruek Aurkako Estrategiaren helburua ez da soilik zurumurru xenofoboek hedapena saihestea, baizik eta edozein testuingurutan bizikidetzeta hobetzea. Horrez gain, udalerriko biztanleen arteko harremanei buruz hausnarketa-prozesu bat egiteko, arazoak ikusarazteko eta komunitate-esparruko gatazkei heltzeko eta horiek kudeatzeko modu berriak aurkitzeko balio du.

Landa-eremuan mekanismo horiek hartzen dituzten bideak desbideratzeko, komeni zaigu haien izaera multifazetikoa gogoraraztea. Estereotipoak eta aurreiritziak osagai kognitiboz, emozionalez eta sozialez osatuta daude. Bizi garen mundua ulertzen laguntzen diguten prozesu psikologikoak dira, eta *kategorizazio sozialeko* mekanismo batean laburbil dezakegun prozesu bati erantzuten diote: norbanakoak talde sozialek kokatzeko prozesu kognitibo naturala, eta gurek kanpoko taldea *homogeneizatze*ko

mekanismoa. Mekanismo horietatik abiatuta, kategoria horiei eusteko balio duten zurrumurruei eusten diegu; hala, errazago estereotipatzen haien parte ez garen taldeak, eta modu atseginagoan begiratzen diogu talde «propioari». Horrela, ezberdintasunak justifikatzen dira eta «beste» horren egoera soziala legitimatzen da, kasu honetan, migratuen eta errefuxiatuen egoera soziala eta haien diskriminazio soziala.

Bestearekiko estereotipoak eta aurreiritziak onartzea eta zabaltzea aldagai hauen mende egongo da: garrantzia, informazioaren anbiguitasuna, kide garen talde nagusiak horri buruz zer pentsatzen duen eta informazio hori nondik datorkigun, nork helarazi digun. Kulturartekotasunaren zutabeen inguruko gure jarrerak sartzen dira jokoan. Gutxi gorabehera, Carlos Gimenezen proposamenari jarraiki, honela laburbil ditzakegu: eskubide-berdintasuna, ezberdintasunerako eskubidea —gure diskurtsoan eta praktikan hain finkatuta ez dagoena—, eta «seinalatua» den taldeko kideekin izan ditugun **elkarreraginak**.

Elkarrekintza gertatu denean edo gertatzen denean, zurrumurruekin elkarriketa abiatzen duen informazio gehigarria izaten dugu. Elkarrekintza positiboa funtsezko oinarrietako bat da elkarrekiko ikaskuntza, konfiantza, lankidetzatza, gatazkaren arauketa baketsua eta jatorri ezberdineko pertsonen arteko bizikidetzatza eraikitzeke.

Zergatik da garrantzitsua hemen, oso azaletik bada ere, mekanismo horiek gogoratzea? Nahiz eta ezin dugun «landa-eremuari dagokiona» homogeneizatu eta kategorizatu, eta nahiz eta kuadrilla bakoitzean ZAE-en inguruko esperientziek berezko berezitasunak dituzten, esan dezakegu landa-eremuko eta hiri-eremuko elkarrekintzek berezitasunak dituztela.

Tokian bertan dugun esku-hartzetik eta esperientziatik abiatuta, baita inplikaturako eragile guztiekin —erakundeak, kideak, adituak, auzokide iruleak— izandako elkarriketatik abiatuta, landa-eremuan «hariak nola mugitzen diren» aipatu dugu: Hala, esan dezakegu korapilatzen gaituzten estereotipoak berdinak direla, baina aldatu egiten dela zirkulatzen duten modua —haien artean korapilatzen eta gu geu korapilatzen gaituzten modua—.

Ikuspegik 2019an argitaratutako *Arabako migrazio-fenomenoari buruzko diagnostiko-azterketa* lanak islatu egiten ditu Arabako kuadrilletan —herrigune txikiagoez eta landa-eremuko herriez osatuak— eta Gasteizen erabiltzen diren estereotipoak. Nahasmen handienetik txikienera, honakoekin daude lotuta: migratzaileek gizarte-laguntzak eta -zerbitzuak eskuratzea; lurraldera iristen diren pertsona kopurua (harrera-gaitasuna); genero-harremanetan duten eragina; bertako biztanleek langabezia duten eragina; haien hezkuntza-maila eta «gurean» duten eragina; zergak ordaintzen egiten duten ekarpena; herritarren segurtasunean duten eragina; haien integrazioa; espazio publikoen erabilera; enplegua; herritar sena; gure praktika erlijiosoetan eta gure bizimoduan duten eragina.

Premisa horiek abiapuntutzat hartuta —onartutako estereotipo berberak, baina auzotarren arteko elkarrekintza berezia—, landa-eremuan ZAE bat ezartzea baldintzatuko duten elementuak eta gogoetak deskorapilatzen joan gaitezke:

Landa-inguruneen **harreman-dinamikez** eta **dimentsio demografikoaz** ari gara: zurrumurruren jarduna baldintzatzen duen lehen elementua da, eta, ondorioz, hura desmuntatzeko, desegiteko eta dimentsioa aipatzeko estrategia. Biztanle gutxiko lekuez ari gara, non errazagoa den jendeak auzokoei buruzko informazioa izatea, nahiz eta pertsonalki ez ezagutu; non auzokoek elkar ezagutzen duten eta elkarri eragiten dioten eguneroko bizitzan, azaletik edo intentsitatez. Bertan, bizilekuarekiko lotura, askotan, garrantzitsuagoa da identitateari dagokionez, hiri-eremuan baino.

Tamaina txikiko biztanleguneetan, espazio sozialak txikiagoak dira, eta topaketak, berriz, errepikakorak. Jendeak bat egiten du haur-parkean, ikastolan, herriko plazan, udal-jardueretan... eta bizilagunen arteko harremanak hurbilagokoak bihurtzen dira. Sarritan, kultur, kirol edo erlijio elkarte berekoak ere badira, edo talde sozial feministetan edo bestelako taldeetan parte hartzen dute, ZAE lantaldean bertan kasu.



Dimentsio horri esker, interakzio sozialen zuzeneko lehenengo behaketa egin daiteke, horietan esku hartu gabe, informazioa ateratzeko kanpoko tresnen bidez. Kulturarteko harremanak — etsaitasuna, koexistentzia eta bizikidetzak— eta harreman horiek zeharkatzen dituzten zurrumurruen identifikazioa eguneroko bizitzan **ikusten, entzuten, haztatzen eta esperimentatzen dira.**



Kanpezuko ikastetxera iristean, ikus daiteke patioaren ezker aldean guraso migratzaileak jartzen direla eta, eskuinaldean, bertakoak eta arabarrak. Hau ohikoa da beste lurralde batzuetan ere, ez da udalerri honetako kontua bakarrik.

Baina Kanpezun, apirileko astelehenetako argazki dinamiko horretan, seme-alabak eskola-adinean dituzten familia guztiak daude. Horrela, jatorri ezberdineko kolektiboek ingurunean dituzten loturen adierazgarri bihurtzen da jolastokia.

Leku txikietako harreman-dinamiek eragina dute bestea hautematean, haren ekintzak interpretatzean, haren portaerari buruzko iritzi eta zurrumurruetan eta horiek hedatzeko abiaduran, bideetan eta sinesmenean.

Etxekoen eta kanpoken arteko muga beste leku batean dago: ezberdinak, kanpotarrak eta atzerritarrak ez dira «bakarrik» beste herrialde batzuetatik datozen pertsonak, baizik eta baita Gasteiz (hiriburua) utzi dutenak Arabako landa-eremuetara bizitzera joateko. Eta kanpoko biztanleen artean ere ez dira berdin hautematen bizilagun berriak eta beren jatorria lurraldean dutenak: «**Maiteren iloba da, emakumea**».

Hiritik landa-eremura migratutako zenbait biztanle, igaro den denbora gorabehera, kanpokotzat hartzen jarraitzen dituzte. Horrek, batzuetan, enpatia sortzen du beste herrialde batzuetatik migratutako biztanleekin, baina ez du esan nahi elkarrekin identifikatzen direnik «kanpokoak» izatearen amalgama osatzen duten pertsonak.

ZAEmak ehundu ditugun pertsona guztiak bat datoz landa-eremuko hurbiltasunaren eta loturen garrantzi handia adieraztean. Hurbiltasun hori aukeraz betetako eremua da, bai zurrumurruak areagotzeko, baita zurrumurruak argitzeko eta komunitatea osatzeko ere.

Aktibismoa eta konpromiso soziala ez dira inoiz anonimoak: «Tipo hori pentsioen eta immigranteen kontuarekin dabilena da». Aktibismoa, landa-eremuan, ez da oharkabean pasatzen. Ez dago anonimotasuna mantentzeko aukerarik. Tokian bertan dugun esperientziatik abiatuta, zurrumurruen aurkako eragileekin batera kuadrilletan lan eginez, oztopo gisa ikusten dugu anonimotasunik eza; izan ere, eragin dezake jendea seinalatuago sentitzea espazio publikoan parte hartzen dutenean.



Ez da gauza bera manifestazio batean parte hartzea Gasteizko Andre Maria Zurian edo Laudioko plazan. Herrian, hartzen duzun posizioak definitu egiten zaitu, eta bizilagunen artean defendatzea tokatzen zaizu. Ausardia pixka bat behar da.

Hiriak ikusezin bihurtzen du zure posizioa. Inork ez daki marokoar militarrek Sahara hegoaldean sartzearen aurkako manifestaziotik zatozela —plazan zurekin egon ez bada—, bi jatorri horietako bizilagunen artean zatiketa eragin dezakeen gai bat adierazteagatik.



Herrian, jendeak elkar ezagutzen du, eta, azkenean, «betikoak» direla esaten da, eta etiketa jartzen dizute, fitxa egiten dizute. Ikusten zaituztenean zure militantziarekin lotzen zaituzte. Pertsonalagoa da, zuzenagoa. Hiri batean talde edo kolektibo gisa hartzen zaituzte.

Zurrumurruak berdinak dira, baina **aurpegiak, helbideak eta jatorriak dituzte**: Amurrion, Bartzelonako erdigunean bezala, bizi-esperientziek, hedabide arruntetan eta sare sozialetan zabaltzen diren albisteek eta ahoz ahoko kontatutakoek estereotipoak eta aurreiritziak sostengatzen laguntzen dute, alde aurretik sinetsita daudenak. Zurrumurruari arreta jarri eta garrantzia emango diegu nagusi den iruditeria indartzen laguntzen dutenean, gure «sinesmenen» zerbitzura daudenean. Ohiko dinamika da.

Baina landa-eremuetan, non loturak eta harremanak zuzenagoak, egunerokoagoak, eta estuagoak diren, desmuntatzea oso konplexua den seinalatzea eragin dezakete.

Hiri-testuinguruan, hedabideek, sare sozialek eta lankideen eta bizilagunen arteko elkarriketek Gasteizko familia siriar bati buruz hitz egingo digute, ustez Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DSBE) legez kontra kobratu duelako. Aipatutako mekanismoak sartuko dira jokoan, eta horren arabera jokatu dugu: kontrastatuz edo sinetsiz, entzungor eginez edo zabalduz. Landa-eremuan badakigu nor den sare sozialek edo auzokoek aipatzen diguten Siriako familia hori, nahiz eta —eta hori oso garrantzitsua da— ez dugun inoiz haiekin harremanik izan, edo oso azaletik izan.

Batzuetan, **gertaera sozial** gisa interpretatzen dira **ekintza indibidualak**: pertsona baten ekintza indibidual edo txiki bat, kolektibo baten parte gisa hautematen denean, kolektibo osoaren jokabide bereizgarri gisa interpretatzen da maiz.



Ikastetxe batean, neskato baten gurasoek, sinesmen erlijiosoengatik, ez badiote uzten gimnasiako klasean dutxatzen, familiaren erabakia ahoz aho zabaltzen da, eta «dutxatzen ez dela» orokortu eta anplifikatu egiten zaio komunitate oso bati.

Adibide oso grafiko bat emateko, esan genezake familia «ezberdin» eta «kanpotar» baten portaeraren garrantzi soziala alderantziz proportzionala dela udalerrian bizi diren jatorri bereko pertsonen kopuruarekiko. Osotasunaren lekuan zatia jartzeak beste ingurune batzuetan funtzionatzen du, baina landa-eremuan anplifikatu egiten da.



Bizilagunak dira protagonistak, bai zurrumurruen hedapenean, bai horiek saihesteko neurriak hartzean. Horregatik, lan egin behar da herritarrek espiritu kritikoa garatzeko beharraz kontzientziazten, horrela informazioa modu egokian baloratzen jakiteko, kanpoko eragina saihestuz iritziak ematerakoan, eta askatasunez adierazten ikasiz.

Zurrumurruak aurpegia, helbidea eta jatorria dituzte, baina elkartasunak ere. Landa-eremuan ZAE bat garatzearen ezberdintasunez hitz egiten dugunean, gaiari buruz hausnartu dugun pertsona guztiak bat gatzotz **loturen garrantzia** adieraztean.

Funtsean, loturarik gabe, murriztu egiten da enpatia garatzeko gaitasuna. Enpatia bada, areagotu egiten da elkartasun- eta elkarlan-estrategiak garatzeko gaitasuna. Zerbait gertatzen bada, lotura hori aktibatu egiten da, komunikazioa oso azkar baitoa herrian. *WhatsApp* bidezko egitura minimo batekin, arrazismoaren aurkako pertsonak aktibatu daitezke, erantzun bat emateko antolatuko direnak (baita erakundeen praxi txar baten aurrean ere).

Landa-eremuan gabezia asko daude, baina zurrumurruak azkarragoak diren bezala, laguntza ere azkarragoa da. Lehenago detektatzen dira dauden beharrak, eta udalak hurbilagoak dira. Gasteizko plazan edo Artziniegakoan protestatzea ez da berdina.

Izan ere, ez da gauza berdina «dena jakiten da» eta «denok ezagutzen dute elkar»: zurrumurruak azkar hedatzen direla eta «dena jakiten den» eremuetan kalte handia egin dezaketela pentsatzeko ahobatezko pertzepzioa bezain ahobatezkoa da «denok elkar ezagutzen dutenean», hau da, elkarrekintza dagoenean, badagoela komunitatea edo, behintzat, badagoela komunitate-potentziala. Jatorri anitzeko pertsonen arteko elkarrekintzaz ari gara. Izan ere, elkarrekintza hori ez da bultzatzen topatzeko helburuarekin —baina baita ere—; aitzitik, eguneroko bizitzako espazioetan ematen da. Jatorri ezberdineko biztanleekiko aurreiritzien eta zurrumurruen aurkako sentsibilizazioaz harago, hori baita ZAE ororen motorra, «[...] inplikazioaren plusa dago, zure herrian bizikidetzatza hobetzeko, eragiten dizulako. Hirietan, hori ez da gertatzen».

Horrela, esan dezakegu landa-eremuan ZAE-ekin hartutako konpromisoa komunitatea eraikitzearen aldeko apustua dela, ez hain profesionalizatua, harremanekin eta emozioekin zerikusia duten osagai bereizgarriak dituen.

Herri batean, sentimendu komunitarioa indartsuagoa eta artikulatzaileagoa da. Hurbileko ingurune batean, koherentzia eta konfiantza oso garrantzitsuak dira. ZAEak eragin eraldatzaileagoa dauka, eraginkorragoa da.

Ez, Elvis Presley ez dago bizirik eta azterritarrak ez dira Ness lakuko munstro berria bezalako kanpainen, Amurrioko eta Aguraingo bizilagunak gonbidatzen dituztenak tokiko saltokietako erakusleihoetan zurrumurru arrazisten inguruan posizionatzera eta haietatik aldentzera, herri handiagoetan oharkabean pasa daitezke eta, zalantzarik gabe, beste karga emozional bat eragiten dute. Ezagutzen dudan bizilaguna, nire ohiko denda, nire kalea, hizketan ari zaizkit. Ez da Gasteizko Dato kaleko multinazional baten marketin-taldea.

Landa-eremuan ZAEak garatzeko, CEAR-Euskadin zurrumurruen aurkako eragileen talde heterogeneoak osatuko dituzten jatorri eta rol ezberdineko pertsonen parte-hartzea sustatzearen alde egin dugu.

Zurumurruen aurkako estrategiak, «betiko» bizilagunek eta bizilagun «berriek» osatutakoak: berez, elkarrekintzaren garrantziarekin eta elkarrekintza positiboa bultzatzeko aukerarekin koherente izanik, zurumurruen aurkako estrategia baten aldeko apustuaz ari gara, betiko bizilagunek eta bizilagun berriek osatutakoa. Biztanle atzeritarren inplikazioa gertatu egiten da, ez da prokatzeko, baina CEAR-Euskadiren apustu politiko bihurtu da. Duela gutxi, Zaz sareak galdera hau egin zion Dani de Torresi: ZAEa autoktono zurientzako estrategia al da? ¹

Diskriminazioaren egiturazko kausei erreparatzeko diegunean, eta «besteak» iristen diren gizarte-ereduaren eta botere-harremanen erantzule egiten dugunean gure burua, ez dira berdinak bertako pertsona «zurien» rola eta «bizilagun berriena». Baina komunitatea eraikitzeari, pentsamendu kritikoa sustatzeari, enpatziari, ezberdintasunarekiko errespetuari eta «gizarte-talde» heterogeneo horien arteko bizikidetzari buruz pentsatzen badugu, perspektibak jatorri anitzeko auzokideen artean lan egitera garamatza.

Interakzioa funtsezko printzipioetako bat da kulturartekotasuna sustatzeko politikak garatzeko, eta «**ikuspegi kritikoa sustatzen du, ez paternalista-karitatezkoa**». CEAR-Euskadin apustu politikoa izan da, bai ZAEa ezartzeko orduan, bai kulturarteko bizikidetzaren sustatzeko beste estrategia batzuk ezartzeko orduan. Ezin dugu zurumurruen aurkako estrategia bat gauzatu talde kultural heterogeneo baten lidergorik gabe, eta topaketa bera zurumurruen aurkako espazio gisa ulertzen dugu. Jarrera partekatua ere bada. Gida hau egiteko elkarriketatutako pertsonak, baina baita gure esperientzian zehar ere, aho batez defendatzen dute apustu honen garrantzia.

Ezinbestekoa da. Taldea ez badago jatorri anitzeko pertsonaz osatuta, iritzi eta sentimenduak partzialak dira. Guk egoki deritzogun helburu batekin antolatzen ditugu jarduerak, baina beste aldeak parte hartzen ez badu, ez dakigu nola bizi duen.

Garrantzitsua da kultura ezberdinak hurbiltzea, haien bizimodu, ohitura, sinesmen eta ospakizunak erakustea herriaren eguneroko bizitzan txertatuz, pertsona autoktonoek eta atzeritarrek erabakiak elkarrekin hartzeko elkarlan-testuinguruak sustatzea, gehiengoak inplikatzeko duten erabakiei dagokienez (herriko obrak, jai-batzordeak...), pertsonen arteko harremanak simetrikoak eta berdintasunezkoak izango diren testuinguruak sustatzea, testuinguru anitzetan lan egiteko profesionalen eta erakundearen gaitasunak hobetzea.


1. <https://zas.eus/entrevista-a-dani-de-torres/>

«Bizikidetza pentsatzeko eta sustatzeko, ez dago bizikidetzarako espazio handiagorik besteekiko interakzioa baino»

Kideentzat —iruleak—, jatorri anitzeko zurrumurruen aurkako eragileen taldeek ikuspegi zabala ematen dute, eta besteari zuzenean eta lehen pertsonan entzuteak sortzen duen enpatia txertatzen dute.

Aparteko balioa ematen zaio migratzaileek eta errefuxiatuek eurek duten potentzialari, eraginkortasunari, haiei buruzko zurrumurruek desmuntatzean. Ez dezagun ahaztu prozesu sozial bat dela, baina baita prozesu kognitibo eta emozional bat ere. «Gure bizilagun migranteen sentimenduez eta gureez hitz egiten dugu, eta ez dugu hirugarren pertsonan egin nahi».

Biztanle atzerritar eta autoktonoak kausa komun batean inplikatzeko da iruleek benetako sare bat deitzen dutenaren zutabea.



Elkar ezagutza, harremana, bizikidetza sortzen da, aukera bat da migratuek eta tokiko biztanleek espazio berean lan egiteko, helburu bera lortzeko. Tokiko biztanleei, teoriatik lan egiteko ez ezik, balio die ere hurbiltasunetik lan egiteko eta biztanleria migratuari kontaktuak, harrera eta integrazioa ematen dizkio. Sare bat eraikitzen da horrela, benetakoa.

Era berean, ez dugu ahaztu behar pertsona migratuek beren estereotipoak eta aurreiritziak eraikitzen dituztela euskal biztanleriari buruz eta harrerako tokiko biztanleriari buruz.



Hain zuzen ere, zurrumurruen aurkako estrategiaren bertutea da erruduntasunik eza eta guztiok gizatiartzen eta lotzen gaituena: gaingitu nahi ditugun estereotipo eta aurreiritziez jabetzea.

Gure herrira beste herrialde batzuetatik datozen pertsona batzuek uste dute segurtasun handiagoa aurkituko dutela familientzat, adingabeentzat, eta herri txiki batean hiri handi batean baino isolamendu sozial txikiagoa hautematen dute. Sareak sortzeko erraztasun handiagoa dagoela ikusten dute, bertako pertsonekin ez bada, behintzat beren herrialdeetako pertsonekin. Landa-eremua isolamendu sozialaren aurkako babes-faktorea izan daiteke, loturak gertuago daudelako.

Heterogeneotasun hori ez da jatorriagatik bakarrik gertatzen. «Magrebtarra bai, eta apaiza eta okina ere bai»: landa-eremuan, zurrumurruen aurkako taldeek aukera ematen dute berdinen arteko harremanak egiteko, rol ezberdinekin.

Hurbileko loturek harreman ez hain profesionalizatuak eta ez hain teknifikatuak errazten dituzte, eta baita profesionalen, elkarteen eta boluntarioen arteko elkarlan-sareak sortzea ere. Hain profesionalizatuta ez dauden espazioek, gainera, interakzioak ahalbidetzen dituzte «elkarrekikotasun» profesional hori ez duten lider sozialekin.

Udal txikietan lan egiten denean, ez dago egitura profesionalik zurrumurruen aurkako estrategiari arreta emateko eta hura sustatzeko agindua duena, udalerrri handietako kulturartekotasun-teknikariak bezalakoak. Kanpezun, ZAEan kultur zinegotzia dago, eta Araian, alkatea. Herri bakoitzean aldatu egiten da udalaren inplikazioa eta erreferentzia pertsonaren kargua. Hurbileko harremanak izaten dira kargu publikoekin, eta inplikaturako pertsonak ingurune horretan bizi dira, seme-alabak ikastola berera eramaten dituzte, osasun-zentro, liburutegi eta kiroldegi berera joaten dira.



Landa-ingurunean presio sozial handiagoa dagoen arren, askoz ere hurbilagoak dira esku hartzen duten profesionalen, pertsonen eta elkarteen arteko harremanak, eta horri esker, errazagoa da elkarlan sare bat sortzea komunitateak parte-hartze handiagoa izan dezan.

Maila tekniko eta politikoan, lotura profesionalik ez duten pertsonen arteko elkarlana aberasten du, Araian herriko apaizarekin bezala; hori funtsezkoa da gure espaziotik antzematen ez ditugun arazoak detektatzeko.

Hurbiltasuna eta ahoz ahokoa direla eta, pertsonak jakin dezakete zurrumurruen aurkako estrategia zer den elkarriketatik abiatuta, bizikidetzarako motibazioa atzematen dute, ZAEa espazio «profesional» gisa interpretatzea saihesten da «ibilbidea duten» aktibisten espazio gisa, eta pertsonak parte hartzera hertsatuta senti ez daitezen laguntzen du. Ez da aktibista rola eskatzen duen paradigma politikoa aldatzeko inplikazioa, baizik eta komunitatea eraikitzea.

Hurbiltasunak, gainera, erraztu egiten du beste hizkuntza batzuk hitz egiten dituzten pertsonak hertsatuta ez sentitzea euskara edo gaztelania erabiltzeagatik. Eta, garrantzitsuena, gero azalduko dugun Bizilagunak egitasmoaren bazkalostean sortutako konpromisoa da. «Populazio gutxiko lekuetan (Araia eta Maeztu, Kanpezu edo Artziniega), harremanek eta tokiko idiosinkrasiak berak, ghettoak ez sortzea errazten dute». «Sarearen bilerak ostiral batean egin daitezke, tabernan, eta zinegotziek eta auzokideek — bertakoak zein kanpokoak— elkarrekin planifikatu ditzakete ekintzak, garagardo batekin. Harremanak estuagoak dira».

BAZKALOSTEA ABIAPUNTU GISA: BIZILAGUNAK, ALDAMENeko FAMILIA

«Denon alderik gizatiarrena ateratzen du Bizilagunak-ek. Etxeko ateak auzokide bati irekitzen dizkiozunean, onena jartzen duzu mahai gainean.»

2019ko azaroaren 17an, 46 herrialdeetako 1082 pertsona elkartu ziren etxe eta txokoetan egindako kulturarteko 72 bazkaritan, Arabako lurralde osoan zehar. AFAk, CEAR Euskadik eta zurrumurruek aurkako eragileen sareek antolatutako topaketa haur, duela urte batzuetatik hona Europako hainbat herrialdetan egiten den jardueraren da.

Proposamena da tokiko eta atzerriko familien artean bazkaria eta bazkalostea partekatzea, bizikidetzaren oinarriak duten estereotipoak eta aurreiritziak argitzeko. Araban duela lau urte hasi zen antolatzen, eta CEAR-Euskadirentzat funtsezko dinamika bihurtu da landa-eremuan zurrumurruek aurkako estrategiak abiarazteko. Hurrengo atalean azalduko dugu nola antolatzen den eta zer baliabide behar diren horretarako.

Bazkarietan eta ondorengo topaketetan parte hartu ondoren, espazio pertsonalak —etxea edo txokoa—, bizitza —bikotea, lagunak, familia—, sukaldaritzako ohiturak eta bazkalosteak partekatzeak dakarren karga sinboliko eta emozionalaren eraginpean, kulturarteko bizikidetzaren eta kultura-aniztasunaren alde egiten dute pertsona horiek.

Esperientzia horren bidez, «gonbita» egiten zaie denboran zehar auzokideen bizikidetzaren aldeko prozesu iraunkor baten alde egiten jarraitzeko. Landa-eremuan —eskaintza aktibista eta sozial gutxiago dagoen tokian, ahoz ahokoa dabilen tokian— Bizilagunak gauzatzeak, nahitaez, arlo sozialetik ez datozen bizilagunak inplikatzeko errazten du.

Landa-eremuko herrietan, mahaia eta bazkalostea elkarrekin partekatzen dituzten bizilagunak, sarritan, lehen ere ikusi dituzun pertsonak dira, eta haiekin harremanetan jarraituko duzu. Eragina du zurrumurruek sortutako iruditerian; aipatu bezala, batzuetan, ikastolako jolastokian, merkatuan edo plazan gurutzatzen dituzun bizilagunen aurpegietan eta izenetan zehazten dira zurrumurruek. Edo, behintzat, gure irudimenean, zurrumurruek jomuga diren jatorri ezberdineko «beste horien taldeko» «kide» dira. Zuri edo «zure ingurukoei» buruz hitz egiteko, zurekin hitz egiteko urratsa ematen laguntzen du.

Esperientzia urte hauetan eta gida hau egiteko azken hilabeteetan solaskide izan ditugun pertsona guztiak bat datoz Bizilagunak-en garrantzia adieraztean ZAEak ezartzeko funtsezko elementu gisa. «Muga hausten du sinesten denaren eta errealitatearen artean, ikuspegiak eta pentsamenduak aldatuz». «Aukera bat da, ez da betebeharrak gisa bizitzen, eta ez du migrazio eta kulturartekotasun abizenik. Bizilagunen artean espazio bat partekatzean datza. Alternatiba ona da.»

Landa-eremuko eskaintza soziokulturala hain murriztu denez, herritarrek, oro har, edozein ekimen eskertzen dute. Baina halako jarduerak herria eta komunitatea sortzea eragiten dute, eta, gainera, zerbait ezberdina izatea eta parte hartzea gonbidatzea, abiapuntu ona da sare batentzat.

Aguraingo bizilagun batek, panamar jatorriko zurrumurruek aurkako eragileak, kontaktatzen du bere lehen Bizilagunak ekimenean parte hartu zuenean herrian hogeita hamar urtez bizi izan ondoren, bertako familia bat iritsi zela etxera, platera, mahaia eta bazkalondoa partekatzeko; trukea. Harrituta geratu zen, eta nahasteren bat izan zela pentsatu zuen. Izan ere, aguraindar sentitzen da, eta familia migratu bat hartzeko prestatu zuen mahaia.

ZURRUMURRUEN AURKAKO ESPERIENTZIAK ETA TRESNAK

Bizilagunak Araba: Ireki zure etxeko ateak, zabaldu zure gogoak

JARDUERAREN IZENA ETA AZALPEN LABURRA

Bizilagunak, aldameneko familia (2016, 2017, 2018, 2019): Herritarrek parte hartzeko ekimen bat da, non jatorri kultural ezberdineko familiak mahaira esertzen diren, dinamizatzaileen laguntzarekin, haietako baten etxean bazkari bat partekatze eta, bide batez, elkar topatu, ezagutu, hitz egin eta gerturatzeko. Horrela, zenbait aurreiritzi eta zurrumurru zalantzea da asmoa. Bizilagunak-en ospakizuna planteatzen dugu, Arabako kuadrilla bakoitzeko kulturarteko bizikidetzari buruzko sentsibilizazio-elementu gisa, eta parte-hartzaileen kezka eta inplikazioak bideratzeko, Zurrumurruek Aurkako Herritarren Sarea sortzera iristeko. Lau urte hauetan, Arabako Lurralde Historiko osoko hamabost udalerritan baino gehiagotan 3500 bizilagunek parte hartu dute Bizilagunak ekimenean.

PUBLIKO HARTZAILEA

Biztanleria, oro har.

PTALDEA (BEHARREZKO LANTALDEA)

CEAR-Euskadiko soldatapeko lantaldea eta boluntarioak, kanpaina diseinatzeko enpresa, ikus-entzunezko materialak grabatzeko enpresa eta otorduak dinamizatzen dituzten pertsonak.

HIZKUNTZA

Euskara eta gaztelania.

IRAUPENA

Bazkaria eta bazkalostea.

OHARRAK

Kanpaina zabaltzeko bideo, kartel eta diptiko bana diseinatu dira, herritarrak ekimenean izena ematera animatzeko.

Familiak lotzeko, kontuan hartzen dira parte-hartzaileen adina, bazkarira joango diren pertsonen kopurua, interesak, alergiak, maskotak, hizkuntzak, irisgarritasuna, etab.

Bazkarietan zehar, familiei bideoak eta argazkiak grabatzeko gonbitea egiten zaie, ondoren, esperientzia guztiekin amaierako bideo bat egiteko.

Garrantzitsua: Jarduera aldeztu aurretik antolatzeak hiru hilabete inguruko prestakuntza eskatzen du. Materiala aurretik sortzeko eta zabaltzeko, bi hilabete behar dira. Otorduak egin baino hilabete lehenago eman behar dute izena familiek, familiak parekatu egin behar dira ondoren, otorduak egin behar dira, ebaluazioa egin, eta, ondoren, argazkiak jaso behar dira amaierako bideoa sortzeko.

Bizilagunak Araba eskerrak emateko topaketa

NJARDUERAREN IZENA ETA AZALPEN LABURRA

Bizilagunak Araba otorduak egin ondoren, topaketa bat egiten da urtero parte hartzen duten familiei eskerrak emateko. Funtsezkoa da hori CEAR-Euskadik Arabako landa-eremuan ZAEa egiteko erabiltzen den metodologian.

Eskerrak emateko topaketan, bazkarietan parte hartu duten familiek berriro parte hartu dute, eta kultura-aniztasunak gure jendartea aberasten duela eta bizikidetzaz errazten duela ospatu dute. Urtero, 300 pertsona baino gehiago biltzen dira Gasteizen, kulturarteko bazkariak egin diren Araba osoko herrietatik. Ekitaldian, ekimena osatzen duten pertsona guztiei ematen zaie hitza: erakundeak, entitate dinamizatzailea eta bazkarietan parte hartzen duten familiak.

Topaketari amaiera emateko, bideo bat proiektatzen da otordu guztietako irudi eta uneekin, zuzeneko antzerki eta musika emanaldia dago, otordu bat banatzen da eta ekimenean parte hartzeagatik eskerrak emateko detaile bat banatzen zaie familia guztiei. Detale horiek zurrumurruen aurkako 'Ez utzi endredatzen' leloa duten txapak eta Bizilagunen argazkiak dituzten egutegiak izan dira, besteak beste.

PUBLIKO HARTZAILEA

Bizilagunak Araba otorduetan parte hartu duten familiak.

TALDEA (BEHARREZKO LANTALDEA)

CEAR-Euskadiko soldatapeko lantaldea eta boluntarioak, ekitaldia diseinatzeko enpresa eta amaierako bideoa grabatzeko enpresa.

HIZKUNTZA

Euskara eta gaztelania.

IRAUPENA

2 ordu.



Erakusleihen proiektua: 'Ez, Elvis Presley ez dago bizirik eta azterritarrak ez dira Ness lakuko munstro berria'

Amurrioko eta Aguraingo Udalak sustatuko kanpaina.

JARDUERAREN IZENA ETA AZALPEN LABURRA

'Ez, Elvis Presley ez dago bizirik eta azterritarrak ez dira Ness lakuko munstro berria' lelopean egindako kanpainaren bidez, migratutako biztanleei buruzko zurrumurru eta aurreiritzi negatiboen izaerari buruzko hausnarketa helarazi nahi da kalera, pertsonak modu naturalean elkarrekin erlazionatzen diren espazioetara.

Horretarako, herrietako dendeak, erakusleihen bidez, kultura-aniztasuna sustatzeko mezua helarazten diete oinezkoei. Hala, gogoeta sustatzen dute kulturarteko bizikidetzaren eragozten duten zurrumurruren inguruan apaindutako erakusleihen monotematiko horietara hurbiltzen direnen artean.

Honakoa da kanpainaren mezua:

Nazioarteko ikerketek frogatu dute buloak eta mitoak iritzi publikoaren arreta galarazteko sortzen direla. Hala ere, Arabak ez du bere burua korapilatzen utziko. Elvis Presley ez dago bizirik eta azterritarrak ez dira Ness lakuko munstro berria. Hitz egin dezagun benetan garrantzitsua denari buruz: bizikidetzaz, elkartasunaz eta auzotasunaz, aniztasunaz. Hitz egin dezagun elkarrekin.

Erakusleihoak panelen eta diptikoen bidez apaintzen dira. Panelek «eguneroko» zurrumurruei buruzko mezuak igortzen dituzte (kana bat kentzen baduzu, zazpi ateratzen zaizkizu), eta, umorearen bidez, pentsamendu kritikoa elikatzen da herriarregian, zurrumurruekin «korapilatu» ez daitezen.

PUBLIKO HARTZAILEA

Tokiko dendak.

TALDEA (BEHARREZKO LANTALDEA):

CEAR-Euskadiko soldatapeko lantaldea eta boluntarioak, eta kanpaina diseinatzeko enpresa.

HIZKUNTZA

Euskara eta gaztelania.

IRAUPENA

Panelak erakusleihoetan jartzeko aukeratzen den iraupena.

OHARRAK

Panelek zurezko egitura dute, eta horrek gero erakusketa gisa, kaleko ekintza gisa, *stand*etan laguntzeko material gisa eta abar erabiltzea errazten du.

Zurrumurruen aurkako antzerkia

Aguraingo Udalak sustatuko kanpaina.

JARDUERAREN IZENA ETA AZALPEN LABURRA

Zurrumurruen aurkako antzerkiaren helburua da, arte eszenikoen bidez, immigrazioari buruzko iritzia sortzea eta Arabako Lurralde Historikoan kultura-aniztasunerako eskubidea ezagutzea eta aitortzea. Jarduera horren bidez, kalera eraman nahi da, antzerkiaren ikaskuntzaren bidez, migratzaileekiko zurrumurru eta aurreiritzi negatiboen izaerari buruzko hausnarketa. Prestakuntza horri datzekio jolasa eta esperientzia-trukea, elkarlana eta konfidentzia gure barne-barneko emozioak eta trebetasunak aitortzea eta balioestea, eta, aldi berean, gure ahuleziak eta mugak onartzea.

Antzerki taldeak landa-eremuko zurrumurruen aurkako sareak osatzen dituzten eragileek osatzen dituzte. Asteroko entseguen bidez, antzerki arloko profesional batek dinamizatuta eta CEAR-Euskadiko teknikariek lagunduta, eragileak eztabaidatik ekintzara igarotzen dira; horrela, kulturarteko bizikidetzari buruzko eztabaida teorikotik salaketara eta kaleko esku-hartzera pasatzen dira.

Egindako antzezlanak musika-jaialdietan, Bizilagunak Araba egitasmoaren esker oneko topaketan, Migratuen Nazioarteko Egunean eta Zurrumurruen Aurkako Estrategiaren esparruan sortutako jardueretan aurkeztu dira.

PUBLIKO HARTZAILEA

Biztanleria, oro har.

PTALDEA (BEHARREZKO LANTALDEA)

CEAR-Euskadiko soldatapeko lantaldea eta boluntarioak.
Arte eszenikoen arloko profesionala.

HIZKUNTZA

Euskara eta gaztelania.

IRAUPENA

Entsegu bat astero.

OHARRAK

Zurrumurruen aurkako antzerkiak hainbat helburu betetzen ditu: alde batetik, askotariko jatorri kultureko pertsonak elkartzeko espazioak sortzen ditu, eta, bestetik, Arabako lurraldean sentibilizatzeko eta kulturarteko bizikidetzaren aldeko mezua zabaltzeko tresna da.

Arabako udaletako zurrumurruen aurkako eragileen taldeak eta teknikari politikoak prestatzeko eta sentsibilizatzeko tailerrak.

JARDUERAREN IZENA ETA AZALPEN LABURRA

EBizilagunak ekimenaren osteko testuinguruan, zurrumurruen aurkako estrategia herritarren parte-hartze prozesu bihurtzen da, eta kulturarteko bizikidetza sustatzea du helburu nagusi. Sare horiek sendotzeko eta fidelizatzeko, tailerrak egiten dira eragile-taldeak prestatzeko eta sentsibilizatzeko, hausnarketa- eta prestakuntza-prozesu gisa ez ezik, askotariko jatorri kulturala duten auzokideak elkartzeko bide gisa ere.

Hitzaldiak eta mintegiak antolatzeko, kultura-aniztasunaren esparruan erreferente diren profesionalak parte hartzen dute.

Jarraian, urteotan egindako Arabako landa-eremuko ZAEko mintegien adibide batzuk aipatuko ditugu:

- Zurrumurruen aurkako eragileen sarea gaitzeko eta prestatzeko tailerrak: *Oinarrizko kontzeptuak zurrumurruei, estereotipoei, aurreiritziei eta desmuntatzeko estrategiei buruz.*
- Islamofobiari eta generoari buruzko mintegiak: *Ez utzi zurrumurruek eta islamofobiak nahas zaitzaten.*
- Diru-sarrerak bermatzeko errentari buruzko prestakuntza-tailerrak: *DSBEa: Zurrumurruek eta egiak.*
- Komunikazio gakoari buruzko prestakuntza-tailerrak: *10 jarraibide kultura-aniztasuna haserretu gabe defendatzeko.*
- Gorroto-delituei buruzko mintegia: *19 tresna diskurtso politiko arrazisten aurka egiteko.*
- Sare sozialei buruzko mintegiak: *Zurrumurruek, buloak eta sare sozialak.*
- Migrazio prozesuei buruzko mintegiak: *Migrazio prozesuak, zurrumurruek, pertzepzioak eta jarrerak.*
- Hezkuntza eta kulturartekotasunari buruzko mintegiak: *Migrazioak, eskola eta bizikidetza.*
- Atzeritarren Legeari buruzko solasaldiak: *Gezurak (G) eta egiak (E) Atzeritartasunari buruz teknikari eta politikariei zuzendua eta Atzeritarren Legea: Hausnarketak eta erronkak, oro har herritarrei zuzendua.*
- Diskriminazioari buruzko solasaldiak: *Diskriminazioa, biktima eta biktimarioen ikuspuntutik: prebentzioa, lanaketa eta erreparazioa.*
- Hegoaldeko Mugari buruzko hitzaldiak: *Mugak gurutzatzen dituzten bizitzak. Hegoaldeko mugaren analisi feminista.*

Mintegi eta tailer hauetako parte hartzaileak izan dira, besteak beste, Gorka Moreno, Xabier Aierdi, Rosabel Argote, Hajar Samadi, Miguel Viñas, Mikel Mazkarian, Ritxar Bacete, Raúl Martínez Corcuera eta Stéphane M. Grueso.

PUBLIKO HARTZAILEA

Biztanleria, oro har.

TALDEA (BEHARREZKO LANTALDEA)

CEAR-Euskadiko soldatapeko lantaldea eta boluntarioak eta landu beharreko gaian aditua den profesionala.

HIZKUNTZA


Euskara eta gaztelania.

IRAUPENA

Saio bakoitzeko 2 ordu.

OHARRAK

Denbora honetan egindako mintegi eta prestakuntza asko zurrumurruen aurkako eragileen sareak eskatu ditu. Eragileek aurkezten dituzte bileretan jorratu beharreko gaiak, dela interesagatik, ezinegonagatik edo unean uneko testuinguru sozialagatik. Sareak berak erabakitzen du data eta lekua, zabalpena egiten du eta hedabideentzako elkarriketak emanez parte hartzen du, baita saioaren hizlariaren aurkezpenean ere.



JARDUERAREN IZENA ETA AZALPEN LABURRA

Arabako Mendialdeko kuadrillan zurrumurruen aurkako estrategiak urte batzuk iraun ondoren, kuadrillako bizilagun diren emakume atzerritarrei eragiten dieten estereotipo negatiboen inguruko lan espezifiko txertatzeko beharra identifikatu zen.

Prozesu hau AFAk sustatu zuen, CEAR-Euskadik koordinatu zuen kulturarteko ikuspegitik, eta Laia-Eskolak (Arabako emakumeen Ahalduntze eta Berdintasunerako Eskola) ikuspegi feminista eman zuen.

Prozesuaren helburua da, alde batetik, Kanpezuko emakume atzerritarren eta bertakoen artean hausnarketarako, ezagutzarako eta trukerako gune partekatu bat sustatzea, eta, bestetik, elkarrekin aurre egitea emakume guztiei eragiten dieten estereotipo sexistei, emakume izateagatik, eta elkarrekiko ezjakintasuna eta interakzio faltagatik elkarri buruz izan ditzaketen estereotipo eta aurreiritziengatik.

Helburu horiek, besteak beste, honako ekintza hauetan biltzen dira:

- Jatorri kultural ezberdineko emakumeekin tailerrak egitea, elkartzeko eta elkar ezagutzeko.
- Kanpezuko bizilagunak zeharkatzen dituzten zurrumurru sexisten inguruko lana.
- Udal-foroetan parte hartzea eta emakume-taldeak proposatutako eta garatutako ikusarazteko eta sentsibilizatzeko jarduerak.
- Egun jakinetan parte hartzea, hala nola martxoaren 8an Emakumeen Nazioarteko Egunean, eta azaroaren 25ean, Indarkeria Matxistaren kontrako Nazioarteko Egunean.
- Emakume eta bizilagun gisa autonomia pertsonala lortzen laguntzeko jarduerak egitea.

PPUBLIKO HARTZAILEA

Jatorri kultural anitzeko emakumeak.

TALDEA (BEHARREZKO LANTALDEA)

CEAR-Euskadiko soldatapeko lantaldea.

Arabierazko prozesuaren dinamizatzailea.

Kuadrillako edo udalerriko kulturartekotasun-teknikaria.

HIZKUNTZA

Euskara, gaztelania eta arabiera.

IRAUPENA

Taldearen prozesu bakoitzera eta erritmora moldagarria.

OHARRAK

Gomendagarria da arabieraz hitz egiten duen dinamizatzaile batekin lan egitea, gune partekatu horietan gaztelaniaz hitz egiten ez duten magrebtar jatorriko emakumeek parte har dezaten.

JARDUERAREN IZENA ETA AZALPEN LABURRA

Kaleko zurumurruen aurkako ekintzak ikasturtean zehar egiten dira, bi helbururekin: udalerriko eragileen sarea ikusaraztea eta lurraldeko bizilagunei kulturarteko bizikidetzaren aldeko mezua helaraztea. Une honetan eragileek jarrera proaktiboagoa hartzen dute, eta prozesuaren benetako protagonista bihurtzen dira.

Sareak hamabostean behin egiten dituen bileren bidez diseinatzen dira ekintzak, *CreAcción* delako sormen kolektiboko prozesu baten bidez, non helburuak, eszenaratzea, beharrezko baliabideak eta testuingurua (egun jakinak, jai tradizionalak, jaialdiak, azoka txikiak, etab.) identifikatzen diren.

CreAcción delako sormen prozesu horren ondorioz, eragileek beraiek sentsibilizazio-, topaketa- eta aintzatespen-ekintzak egiten dituzte udalerriko kaleetan.

Hona hemen landa-eremuko sareek egindako ekintzen adibideak:

- 1. Muralismo tailerra gazteekin:** Herriko gazteek kultura-aniztasunaren inguruko lan-saioetan egindako marrazkien zirriborroen bidez, azken zirriborro bat egiten da, eta pareta edo taula batean islatuko da, bertako herritarrek margotu dezaten.
- 2. Kulturarteko bazkariak aire zabalean:** udako hilabeteetan, Bizilagunak Araba kalera ateratzen da, eta herriko bizilagunak mahai jarraitu baten inguruan biltzen dira bazkaltzeko eta partekatzeko.
- 3. Zurumurruen aurkako erakusketak:** udalerrietako guneeetan partekatzen dira sareko argazkiak, 'Erakusleihoak' kanpainako panelak, Bizilagunak kanpainako argazkiak, zurumurruek eta kontrazurumurruek dituzten kartelak, etab.
- 4. Iftar otordua espazio publikoan:** zurumurruen aurkako eragileen sareak parte hartzea udalerriko plazetan talde musulmanek antolatutako baraualdiaren amaieran.
- 5. Udako zineforuma:** udako hilabeteetan zineforumak egiten dira udal plaza eta igerilekuetan.
- 6. Moskeo kanpainak:** zurumurruen aurkako jarduera batera gonbidatzeko edo herritarrak kulturarteko bizikidetzari buruz hausnartzera gonbidatzeko, *moskeo* kanpainak egin dira. Kanpaina horietan, eragileek gauez kartelak jartzen dituzte astero, esaldiak osatuz edo udalerrian jakin-mina eta eztabaida sortzeko galderak eginez.
- 7. Zurumurruen aurkako argudioen buzoneoa:** udal gazeta eta aldizkariekin batera zurumurruen aurkako materialak banatzea, lurraldeko etxe guztietara irits daitezen.
- 8. Té-topaketak eta antzerki emanaldiak:** te-topaketak eta antzerki-forumak egitea udalerri bakoitzean igande arratsaldetan. Te-topaketa edo antzerki bakoitza kultura-aniztasunarekin lotutako gai bati buruzkoa da.

JARDUERAREN IZENA ETA AZALPEN LABURRAN (jarraipena)

- 9. *MobilizAcciones*:** Arabako hainbat udalerritan aldi berean egindako kale-zurumurruen aurkako ekintzak, gure egutegian egun garrantzitsuak ospatzeko (Arraza Diskriminazioaren aurkako Nazioarteko Eguna, Elkarriketa eta Garapenerako Kultur Aniztasunaren Munduko Eguna, Errefuxiatuen Munduko Eguna eta Migratuen Nazioarteko Eguna). *MobilizaAcción* delakoen artean daude:
- a. **Eszenografia hariekin Amurrion, *Ez utzi endredatzen*:** herriko plaza hariekin korapilatzen duen eszenografia, esekitoki batetik zurumurruak zabaltzen dituzten kartelak zintzilikatzen dituenak. Zurumurruen aurkako eragileek zurumurruak desmuntatzen dituen informazioa irakurri eta haiei buruzko karteletan zintzilikatzen dute, eta, aldi berean, hariak moztu eta espazioa askatzen dute.
 - b. **Bizikidetzaren eragileak Laudion:** Dinamika ludikoa herriko plaza batean. Zurumurruen aurkako eragileek, polizia mozorrotuta, oinezkoak irudizko muga batean gelditzen dituzte, eta galdetegi batean parte hartzea proposatzen diete, galdera errazak eginez: atzeritar jatorriko zer ehuneko bizi da Laudion?
- 10. Pankartadak:** Udalerrietan egun jakinak ikusarazteko pankartak diseinatzea eta egitea.
- 11. Besarkadak:** Udalerrri bakoitzean, jatorri kultural ezberdineko herritarrek, ilaran, eskuetatik heltzen diote elkarri, eta gero eta gehiago mugitzen eta hurbiltzen dira, parte-hartzaile guztiak besarkatuta geratzen diren espiral bat egin arte. Mugimendua txalapartaren erritmora egiten da.
- 12. Agur tailerra:** Agurren bilduma, munduko hainbat lekutatik datozen pertsonen arteko ezagutza, hurbilketa eta ikusgarritasuna sustatzeko. Emaizta gisa, parte-hartzaile guztien irudiekin *collage* bat egiten da, eta, irudi bakoitzari lotuta, bideo bat, jatorrizko lekuaren agurrarekin eta haren azalpenarekin.
- 13. Tokiko azoka eta merkatuetan parte hartzea:** Sentsibilizazio-materiala duen stand jartzea tokiko ekitaldietan, zurumurruen aurkako eragileek koordinatuta eta dinamizatuta.

PUBLIKO HARTZAILEA

Biztanleria, oro har.

TALDEA (BEHARREZKO LANTALDEA)

CEAR-Euskadiko soldatapeko lantaldea eta boluntarioak.
Udalerrri bakoitzeko zurumurruen aurkako eragileen sarea.

HIZKUNTZA

Euskara eta gaztelania.

IRAUPENA

Kaleko esku hartze bakoitzerako beharrezko denbora.

LANDA-EREMUAN ZURRUMURRUEN AURKAKO ESTRATEGIA GAUZATZEKO ETA ZABALTZEKO MATERIALAK

Arabako landa-estrategiaren lau urteko ibilbidean, zurrumurruen aurkako edukia duten materialak sortu dira. Material horiek sarea zabaldu eta ikusarazteko erabili dira, baita barneko eta kanpoko baliabide gisa ere, Arabako udalerrietan dabilzan estereotipo eta zurrumurru arrazistei aurre egiteko.

ZURRUMURRUAK DESMUNTATZEKO ESKUORRIA



ZURRUMURRUEN AURKAKO ESTRATEGIA AURKEZTEKO DIPTIKOAK



BIZILAGUNAK EKINTZARAKO TXAPAK



#LosRumoresNoCogenVacaciones UDAKO KANPAINARAKO DISEINATUTAKO POLTSA



BIZILAGUNERO: ALDAMENEO ERREZETAK

Lau urte hauetan Arabako Bizilagunak ekimenaren bazkarietan parte hartu duten familiek egindako plateren errezetak biltzen dituen liburua.

www.cear-euskadi.org/araba-sigue-sumandose-a-las-comidas-interculturales-bizilagunak-a-traves-de-un-recetario-para-conocer-compartir-y-convivir-a-traves-de-la-gastronomia/



TOKIKO DENDETAKO ERAKUSLEIHOETAN JARTZEKO BINILOAK, 'ZURRUMURRURIK GABEKO GUNEA'K' LELOAREKIN.



JARDUEREN DIFUSIOA EGITEKO KARTELAK ETA BANNERAK



#EzUtziEndredatzen IKUS-ENTZUNEZKO KANPAINA ZURRUMURRU ARRAZISTA ETA XENOFOBOEN AURKA.

<https://www.youtube.com/watch?v=5Zo30Q10rjE>



<https://www.youtube.com/watch?v=8liQqM5R-Mw>



BIZILAGUNAK ARABA KANPAINAREN DIFUSIORAKO IKUS-ENTZUNEZKO EDUKIA

SUSTAPEN BIDEOA. BIZILAGUNAK ARABA 2016. AZAROAK 13

<https://www.youtube.com/watch?v=Jx5cWz95Ni0&feature=youtu.be>



BIDEO ETA PILULA PROMOZIONALAK. BIZILAGUNAK ARABA 2017. AZAROAK 17

<https://www.youtube.com/watch?v=ZV2Uc9Za8Yk&t=80s>



<https://www.youtube.com/watch?v=bN6x4zNAkxY>

<https://www.youtube.com/watch?v=GLRwcvutL2c>



BIDEO ETA PILULA PROMOZIONALAK. BIZILAGUNAK ARABA 2018. AZAROAK 11

<https://www.youtube.com/watch?v=Qtt7Vm9WQO0&t=43s>



https://www.youtube.com/watch?v=LrfOf_K6lw8&t=7s

<https://www.youtube.com/watch?v=CdQbvZdNNik>

<https://www.youtube.com/watch?v=3fdVnS0dJGk>

SUSTAPEN BIDEOA. BIZILAGUNAK 2019

https://www.youtube.com/watch?v=D6uZOud_4_E&t=1s



BIZILAGUNAK ARABA EGITASMOAN PARTE HARTZEAGATIK FAMILIEI ESKERRAK EMATEKO BIDEOA

2017

<https://www.youtube.com/watch?v=qSur9dHonAU>



2018

<https://www.youtube.com/watch?v=0y-i1CtCJCU&t=112s>

2019

<https://www.youtube.com/watch?v=-x33qYSjDHc&t=349s>

LANDA-EREMUKO IRULEAK, LEHEN PERTSONAKO ISTORIOAK



Komunitatea ehuntzeko hitzak

Encina

ARTZINIEGAKO BIZILAGUNA ETA ZURRUMURRUEN AURKAKO ERAGILEA

“

Duela lau urte jakin nuen boluntario bat behar zela Artziniegako bizilagunei gaztelania irakasteko, eta, birritan pentsatu gabe, abentura honetan murgildu nintzen.

Ez nuen inoiz gaztelera azko eskolarik eman, baina ordura arte ia ezagutzen ez nituen jatorri ezberdineko bizilagunekin harremanetan jartzeko astia eta interesa nuen. Ikastolako patioan elkartzen ginen, eta kalean elkar ikusten genuen, baina ez ginen konektatzera iristen.

Lehenengo eskolara 6 bizilagun etorri ziren. Bigarren eskolan 15 izan ginen. Gaztelania ikasi nahi zutela esan zidaten, horrek eguneroko lanak egitea erraztuko zielako, hala nola erosketak egitea, medikuarenera joatea edo seme-alaben eskolako lanak ulertzea. Beraz, horri ekin genion.

Gogoan dut hasieran kostatu egiten zitzaidala haien izenak gogoratzea. Eskatzen nien beti leku berean esertzeko eta beren izenak zituen pegatina bat jartzeko. Zaila zen lehen klaseetan komunikatzea, nik ez nekien arabieraz eta frantses pixka bat nekien, baina beti topatzen genuen elkar ulertzeko modua, keinu, begirada eta irribarreen bidez.

Bertako, Marokoko, Mendebaldeko Saharako, Aljeriako eta Nigeriako emakumeek parte hartzen genuen. Migratu eta dena atzean utzi behar izan dugun emakumeak; beraz, talde honek, astez aste, lau urtez, familia izaera hartu du.

Eskeletan teoria ematen dugu, baina gure artean ere hitz egiten dugu, guri buruz. Ohitura ezberdinez hitz egiten dugu, gure jaiez, egunerokotasunean gertatzen zaizkigun gauzez, bizitzaz.

Gaztelaniazko eskeletatik abiatuta, ordurarte egin ez nituen beste jarduera batzuk partekatu ditugu, kontrolatzen ez nituenak, eta elkarrekin ikasten joan gara. Hitzaldietara joan gara, bihotz-biriketako bizkortzeari buruzko ikastaroak egin ditugu, UNEDen bidez gaztelera-ikastaroa egin dugu. Artziniegan urtero egiten den Erdi Aroko merkatuan parte hartu dugu, pastak saltzen eta gure jantzi tipikoak erakusten, eta zurrumurruek aurkako estrategiaren jardueretan parte hartu dugu.

Oso pozik nago lau urte hauetan aurreratu dugunarekin. Herritar asko joan dira Artziniegatik, baina harremanetan jarraitzen dugu. Gaur egun, 18 emakume taldea gara, eta astean behin elkartzen gara.

Pertsonalki, ez dut nire burua soilik «gaztelera azko irakasle» gisa, bizilaguna eta laguna ere banaiz. Autoz medikuarenera laguntzen dizun auzokide bat, entzuten eta ulertzen zaituen lagun bat eta Artziniega herri atseginagoa izan dadin bere ordu libreak eskaintzen dituen gaztelera azko irakaslea.

Espero dut abentura honekin beste lau urtez jarraitu ahal izatea!

”

“

Arraia-Maeztuko bizilaguna naiz duela urte batzuetatik, eta ordurarte ez nuen uste herriko beste emakume batzuei gaztelaniazko eskolak emango nizkienik. Gure istoria kasualitatez sortu zen... Egun batean, ikastolako jolastokian, semearen eta alabaren zain nengoela, nire auzokide Meryamekin egin nuen topo, nire ondoan baitzegoen zain. Elkar agurtu genuen, baina zer moduz zegoen galdetu nionean ez zuen erantzuten jakin. Pixka batean hitz egiten saiatu ginen, baina konturatu nintzen kosta egiten zitzaiola gaztelaniaz hitz egitea. Une horretan, birritan pentsatu gabe, galdetu nion ea astero kafe bat hartu nahi zuen berriketan aritzeko, eta, hala, gaztelania pixka bat gehiago praktikatu ahal izateko.

Hurrengo astean biok geratu ginen, hizketan aritu ginen, eta esan zidan bazirela hizkuntza praktikatu nahi zuten emakume gehiago. Datorren astean 6 ginen.

Maeztuko beste bizilagun bat animatu nuen «erokeria» honetan laguntzera, eta, horrela, elkarrekin hasi ginen, gaztelania eskolak emateko ideiarik ere izan gabe, baina ilusio handiz eta ondo egiteko gogoz. Eskolak martxan jartzeko moduari buruz gidatzeko, CEAR-Euskadik Gasteizen duen bulegora jo genuen fitxa batzuk jasotzera, eta liburu batzuk erosi genituen.

Oso polita izan zen, kultur-etxera etortzen ginen eta psiko-dramak muntatzen genituen. Teoriatik praktikara igaro behar genuela ikusi genuen, eta egunerokotasunean sortzen ziren egoerak interpretatzen genituen, nola jokatu jakiteko. Eszenak antzezten genituen: medikuarenean kontsulta bat, ogi barra bat nola eskatu, tramite burokratikoren bat nola egin edo liburutegiko liburu bat maileguan hartzea.

Denborarekin, gaztelania denoi gustatzen zitzaizkigun jardueren bidez praktikatzea erabaki genuen. Egun batean henna tailer bat egin genuen kalean, eta, konturatu gabe, herriko haurrak etortzen hasi ziren. Ederra izan zen. Beste egun batean cous-cous tailer bat egin genuen, bi ordu barru eginda egongo zelakoan, eta bost ordu behar izan genituen. Hori erokeria! Gure familiei deitu genien eta afaltzera etorri ziren, eta afari hura Bizilagunak inprobisatu bat bihurtu zen. Beste egun batean paseatzera joan ginen. Gainera, zurrumurruen aurkako estrategiaren jardueretan elkartzen ginen; hortaz, gero eta gehiago ikusten genuen elkar, eta gero eta hurbilago sentitzen ginen.

Bi urte egon ginen horrela, eta oso aberasgarria izan zen. Bi auzokideren artean kasualitatez arratsalde batean sortu zena konfiantzazko talde bihurtu zen. Bata bestearengandik ikasi genuen, batzuetan, bereizten gaituztenak baino elkartzen gaituzten gauza gehiago daudela ohartzen uzten ez diguten murrak botaz.

”

Hegalen artean: zurrumurruen aurkako antzerkia

Maryam

MAEZTUKO ZURRUMURRUEN AURKAKO ERAGILEA

“

Nire istorioa 2016an hasten da, Bizilagunak-eko kulturarteko bazkarietan parte hartu ondoren, nire herriko zurrumurruen aurkako eragilea bihurtu nintzenean.

Sarearen lehen urtean hitzaldi eta prestakuntzetan parte hartu nuen, eta herriko jaietan jarri genuen zurrumurruen aurkako photocall baten sorreran ere. Aurrerago, sarea antzerki talde *amateur* bihurtzeko ideia sortu zen, zurrumurruen aurkako antzerkia egin eta kultur aniztasunaren aldeko mezua kalera ateratzeko.

Nik ez nuen inoiz antzerkirik egin, baina Marokon, jatorriz bertakoa bainaiz, arte klasean ikasi nuen, eta asko gustatzen zitzaidan jendearekin elkartu eta sormenezko gauzak egitea; horregatik, parte hartzera animatu nintzen.

Hilabete batzuk eman genituen Maeztuko 16 bizilagunek baino gehiagok obra bat entseatzen obraren zuzendari Miguelonek [pikor Teatro] gidatuta. Niretzat oso dibertigarria izan zen, ondo etorri zitzaidan jende berria ezagutzeko, harremanak areagotzeko eta gaztelania indartzeko.

Lehen emanaldia egin genuenean oso urduri nengoen, jende asko zegoen plazan, baina pasatu egin zitzaidan ikusi nuenean guri begira zegoen jendeak irribarre egiten zigula eta ondo pasatzen ari zela, eta lasaitu egin nintzen orduan.


Emanaldiaren bideoa mugikorrean gordeta daukat, eta gustatzen zait noizean behin ikustea. Marokoko nire familiari bidali nion, herrian zer egiten dugun ikus dezaten.

Jende oro animatzen dut jarduera hauetan parte hartzera, uste dut topagune gisa balio digutela eta auzokide gisa hurbiltzen gaituztela.

Ez dut egun hori ahaztuko, oso berezia izan zen niretzat.

”

BIBLIOGRAFIA



- ANDALUCÍA ACOGE: *Stop Rumores: Manual Antirumor*. Andalucía, 2019.
Hemendik jasota: <https://stoprumores.com/wp-content/uploads/2020/06/Manual-stop-rumores-2019.pdf>
- IHESLARIAK LAGUNTZEKO ESPAINIAKO BATZORDEA EAEN: *Álava: Espacios, Culturas y (Con)vivencias. Cartogramas de la interculturalidad, por sus protagonistas*. Araba: CEAR-Euskadi, Los Sribas-ekin elkarlanean, 2009.
- IHESLARIAK LAGUNTZEKO ESPAINIAKO BATZORDEA EAEN: *Nueva metodología de diagnóstico y promoción de la convivencia intercultural en entornos vecinales culturalmente heterogéneos*. Bilbo: 2011.
- D-CAS (COL·LECTIU D'ANALISTES SOCIALS): *Guía práctica para agentes antirrumores. Cómo combatir los rumores y estereotipos sobre la diversidad cultural en Barcelona*. 2016, Bartzelona, 2016.
Hemen: https://ajuntament.barcelona.cat/bcnacciointercultural/sites/default/files/documentos/guia_antirumors_barcelona_2016_cas.pdf
- DE TORRES BARDERI, Daniel: *Manual antirrumores del Consejo de Europa*, Europako Kontseilua, 2018. Hemen: <https://rm.coe.int/manual-antirumores-daniel-de-torres-barderi/16808ee618>
- IKUSPEGI: *Estudio diagnóstico sobre el fenómeno migratorio en Álava*, 2019 (Ikuspegi. Immigrazioaren Euskal Behatokia). Hemen: https://www.ikuspegi.eus/documentos/otras_publicaciones/ESTUDIO_DIAGNOSTICO SOBRE_EL_FENOMENO_MIGRATORIO_EN_ALAVA.PDF
- GÍMENEZ ROMERO, Carlos: «Convivencia: Conceptualización y sugerencias para la praxis». *Puntos de Vista, Cuadernos del Observatorio de las Migraciones y de la Convivencia Intercultural de la Ciudad de Madrid*, Madril, 2005, 1. zk., 7-32.
- «Interculturalismo elaboraciones y propuestas desde un equipo universitario teórico- aplicado», *Intercultura e Mediazione. Teorie ed esperienze*, Erroma: Carocci Editori, 2008, 149-169.
- RODRIGO ALSINA, Miquel: «Espacios de la interculturalidad. Elementos para una comunicación intercultural». *Revista Cidob d'Afers Internacionals*. Bartzelona, 1997, 36.zk., 11-21.
- ZAS ZURRUMURREN AURKAKO SAREA/ RED VASCA ANTIRUMORES: *A hombros de gigantes. Marcos, premisas y sirimiri*. Koord. Xabier Aierdi eta Andrea Ruiz Balzola. EAE, 2020. Hemendik jasota: <https://zas.eus/materiales-y-herramientas/a-hombros-de-gigantes/>

ESKER ONAK

Mila esker puntu eta joskintza eskolengatik... eta beste esker on batzuk

Herri, auzo eta udalerri bakoitzean eguneroko bizikidetza ehuntzen duzuenak zarete, benetan, Apunte hauetako protagonistak. Zuen lan xeherik gabe, ez lirateke existituko ehundu dituzuen —eta ehuntzen jarraitzen dituzuen— auzo-oihal horiek. Ez lirateke existituko tapizak, artile deskorapilatuarekin jositakoak. Ez litzateke existituko, ezta ere, CEAR Euskadiko lantaldetik omenaldi eta esker on gisa eskaini nahi dizuegun argitalpen hau.

Horregatik, eskerrik asko iruleei, eskerrik asko zurrumurruen aurkako eragileei. Eskerrik asko zuen denboragatik eta ZAEko bilera eta topaketetan parte hartzeagatik. Eskerrik asko kartelak itsasteko geratu zareten zuetako bakoitzari, gurekin egin dituzuen manifestazio eta elkarretaratzeetan partekatutako oihu bakoitzagatik. Eskerrik asko munduarekiko frustrazio, arrakasta eta haserre bakoitzagatik, josten duzuen puntada bakoitzean jartzen duzuen zaintza eta maitasunagatik. Eskerrik asko askariengatik, besarkada, abesti eta bizilagunen arteko bazkari bakoitzarengatik. Baina, batez ere, eskerrik asko zuen inplikazio eta konpromisoagatik eta sinetsarazteagatik, ez bakarrik beste mundu bat posible dela, baita landa-eremuan kulturarteko bestelako bizikidetza posible dela ere.

Apunte hauen idazketa “puntu eta joskintza” eskola askoren emaitza da; horien bidez, lurralde txikietan bizilagunen arteko harremanak nola ehuntzen diren erakutsi diguzue. Zuen ekarpenak jasotzen eta zurrumurruen aurkako jarraibide bihurtzen lagundu digute Ekain Larrinaga, Lorena Alonso, Marimar Lamiquiz, Janire Moreno, Encina Castresana, Rocío Serrano, María Teresa Quintero, Elo Mayo, Ana Ruiz de Azúa, Maryam eta Amurrioko Udaleko Oinarrizko Gizarte Zerbitzu osoak.

Eskerrik asko adierazi duzuen eskuzabaltasunagatik, talde honekin zuen ezagutza partekatzeko orduan. Ezagutza hori ilustrazio bihurtzea posible izan da Jone Zugazagaren (2ados) sormenari eta jenialtasunari esker. Eskerrik asko ere, Ana Ferri, josteko eta editatzeko zure trebetasunagatik.

Azkenik, eskerrak eman behar dizkiegu ZAEa bere udalerrietan babestu duten eragile sozial, politiko, instituzional eta kultural guztiei; bereziki, lan egiten dugun udaletako teknikariei. Era berean, eskerrak eman nahi dizkiegu Arabako Foru Aldundiari, eta bereziki Lorena, Bea, Arantza eta Jone kulturartekotasun teknikariei, urtez urte ZAEa Araban hazten eta errotzen jarraitzearen alde egiteagatik. Eskerrik asko ere Lehendakartzako Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzari, haren babesik eta diru-laguntzarik gabe, ezin izango genituzkeen josi *Landa-eremuan zurrumurruen aurkako estrategiak ehuntzeko apunteak eta puntadak*.



